

Las asignaturas y temas relacionados con la lingüística han sido siempre muy concurrencias en la Universidad Vasca de Verano. Lo han sido entre otros motivos porque, en primer lugar, el euskara es precisamente lo que distingue a esta universidad de la otra o de las otras. Desde siempre, ha sido ésta una reivindicación permanente y esencial en la UEU. Y éste uno de los objetivos primordiales de la misma: conseguir que todas las disciplinas universitarias, las clásicas y las recurables, sean impartidas en euskara. Para ello, la publicación de libros básicos y de investigación, son una aportación inestimable.

La cuestión de la lengua está pues, en la base de la filosofía y la práctica de la Universidad Vasca de Verano. El hecho de que, además, como proyecto de Universidad Nacional, llega ya y pretende que así sea siempre, a todos los territorios de Euskal Herria, Norte y Sur, a ambos lados del Bidasoa, los estudios de dialectología han tenido también siempre un eco favorable en el alumnado. Junto con el estudio y análisis de los dialectos, que, constituye este año, por ejemplo una de las aportaciones más serias a este nivel, dirigidos por el lingüista y escritor, José Luis Alvarez Enparanza "Txillardegí", quien presenta asimismo una tesis doctoral sobre "el acento vasco", están los estudios teóricos prácticos de glotodáctica a cargo de Alan King, el análisis valorativo de los métodos de enseñanza del euskara y los problemas derivados del estudio de la segunda lengua, y ya en el terreno puramente literario, el análisis de narraciones o cuentos breves, cuyo aumento de producción puede significar un notable enriquecimiento de este género en la actualidad. De todo esto hablan hoy "Txillardegí" y Karlos Otegi.

Azkueren zazpi euskalkiei buruzko azterketa zuzendu eta euskal azentuari buruzko tesi mardula burutu du Txillardegik

IRUÑA (EGIN).— (ETXEPAREK zuzenean jasoa). Aurtan, ikasturtean zehar, UEU ez baita udan sortu eta ximeltzen den lorea baizik eta urte osoan eraitzen den haziak ematen duen uzta, Azkueren zazpi euskalkiak aztertzeari ekin diote, Txillardegiren zuzendaritzapean, han hemenka barreiatu-riko talde batzuek. Zazpi talde osaturik, Zuberera eta Hego Nafarrera aztertu dute EUTGkoek; Joseba Gabilondok eronkariara; Gasteko taldeak, Amaia Otxoa eta besteek, lapurtera; Gotzon Aurrekoetxea eta beste zenbaitetik bizkaierari heldu diote, eta Donostiako beste talde batek oraindik, Baxenafarrera. Lan hori burutu, oreaku eta osatu ondoren, liburu bat aurkezteko izango da urrango pausoa. Durangoko Azokan azalduko da segurasi liburu. UEUen, aldiz, egunotan, azterketa horien berri ematen da, luzeago ala laburrago. Ulzama eta inguruko herriak bisitatuz, esperientzia zabalduko delarik.

Bestalde, aurtan, Txillardegik,



Dialektologiako Bizkaiko taldea.

(UEUko prentsa bulegoaren argazkia)

Karlos Otegi: «Literatura produzitu beharko genuke UEU-k»

Karlos Otegi da, azken urteotan UEUen, literaturari buruzko ikastaro berezia zuzentzen duentatikoa bat. Bera da, bestalde, aurtan ipuingintzari lotuko zaiona. Berak aditza eraman digunez, "alde batetik ipuinen definizioa, teoria, kontakizunaren elementu nagusiak etab; bestalde, metodologia. Alde batetik eredu estilistikoak: pertsonaiak, egiturak etab. aztertu komentarioaren bidetik eta gero, estruktural sistemaren bitartez aztertu, Todorov Greimas eta horrelakoen hildutik. Semiolgikiki ere aztertzen ditugu zenbait ipuin, baita ikaslegoaren arabera beste hainbeste". Aurtan aukeratuak izan diren autoreak hauek izan dira, Pernaldo Ameketairearen gertaera xelebre bat, Mirandaren "Zazpi giza-erabileak", Arestiren "Olerkaria", Naranburu Altunaren "Kara-

kol preso". Mikel Hernandezen "Gurutzegramak egiten zuten gizona", eta Sarrionaindiren lanak. Atxagaren "Post tenebras espero lucem".

Bistakoa da egunotan Euskal Herrian zehar ipuin produkzioa eta irakurtzea ugaitzen ari dela. Bistakoa da "halako produkto nabarmena ikusten dela", agian "modan dagoelako", "errez irakurtzen direlako", "nobelarekin konparatuz askoz ere xamurragoak egiten direlako". Hori guziori ikusia du K. Otegi, "nahiz eta fenomenoa oraindik seriozki sakondu ez".

Dena dela, oraingo eta lehengo ipuingintza konparatuz, Otegiaren eritiz "balio literarioari buruz, gaurkoak gehiago balio du".

"Mirande eta Arestiren garaietan eman zen sailto hori, 1965.ean gutxi

rrena eta zabalduena baita". Txillardegiren ustetan, azentuaz zerbait tajuzko egiteko, lan monografikoak egin behar dira. Horietatik Bizkaian badirelarik —Bazterretxea, Altube etab—, Gipuzkoan adibidez guztiz falta dira.

Azentuari buruzko proposamenak FLVen

Ortografiaz, Iparraldeko joerak gorde badira, "horko altxor literatura kontsideratuz", morfologiak gipuzkera-lapurteraren ereduak hartu dira. Bizkaeraren kalterako, agian, edo behintzat "bizkaiera baztertuz", Txillardegik, "Fontes Linguae Vasconum-FLV en, proposamen batzu emango ditu. "Lehenik eta behin ekialdeko joera ezin daitekeela oinarritat hartu, baizik eta mendebaldeko aukeratu behar dela. Adibidez, Bizkaian alde hau askoz ere markatu eta definituagoa da". Tonu diferentziak askoz ere txikiagoak omen dira espainolarenekin konparatuz, "halere diagrama erregularra —tak. tak-plat— ez da betetzen".

Honek esan nahi du arau batzutan eman behar direla, eta maila honetan azentuaz ere behar bezala transmititzeko, "azentua idaztearen aldekoa" da Txillardegik.

Arauetara gagozkiolarik "hitz markatuak, hots, posizio berdinean beti azentua dutenak, eta normalak bereiztu behar dira; zenbait tokitan bizirik dagoen balio bereizlea kontutan hartu —mandoa eta mandoa, ez da berdina— etab. Argi jakin behar da, oso zehazki eta berehala, hitz markatuak zeintzu diren, hau da azentua, beti posizio berdinean daramatenak, bai sustantibo, adjetibo edota aditzetan ere". Horiek dira, Txillardegik ortografian proposatzen dituen zenbait puntu.

gora behera", dena dela "Atxaga batek, nahiz eta kanpoko irudimezko elementu asko hartu, hemengoak dira baserri giroak eta abar".

Karlos Otegi, bestalde, literatura sailaren kezka ere badu, UEUri dagokionez, zeren "literaturaz jende asko interesaturik dagoenez, mereziko luke, lau bost urtetarako plangintza bat osatzea.

Eztabaida guztiak entzun beharko liriteke horri buruz, baina sail bereizitaz hartzeko garaia heldua dela esango nuke". Bestalde Otegi- ren ustetan, UEUen "kreazio lana ere bultzatu beharko litzateke eta horretarako ez da leku txarra sail hau, literatura ikasteaz gain, produkzioa ere ugariatu eta sakontzeko".

ETXEPARE



Txillardegik bi lan berri aurkeztu ditu UEUen.

(Prentsa bulegoaren argazkia)

Euskal dialektologian barrena

Euskalkietan barrena ari gara "Larraona"n egun hauetan: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, zuberera... Oso polita da, oso interesgarria da, eta ikasle pila bat etortzen da egunero: gainezka egoten da ikasgea. Euskaltzaleok oso maite ditugu euskalkiak, eta mendeetan barrena euskaldunek mamitu dituzten hizkera-nabardurak eta bitxikeriak.

Gero eta gehiago, ordea, euskalkien ikerketa, hildako hizkeren ikerketa da. Eronkariara, jakina denez, itzalduta egin da, eta Eronkariako ibar ederren erdara baizik ez da entzuten. Zaraitzun euskara suntsitua da; nahiz Espartzan eta Eaurtan zahar batzuk euskaraz zerbait esan ahal izan. Gauza bera Aezkoan, pertsona zahar batzuek salbu. Hego-Nafarrera osoa, joan den mendean Gares eta Gofititik Irunberri eta Nabazkotzeraino mintzatua, suntsitu egin da, eta Mezkitzen edo Iragin aurki daitezkeen euskaldun banakek, ez dute egia aldatzen. Ultzaman bertan, bi mila biztanle, ostiralean bisitatzeko, erdalunak dira erabat nagusi, eta euskara ez da erabiltzen.

Eta Baztanen eta Basaburuan bertan, zer? Eskualde osoak galdu ditu gure nazio-hizkuntzak; Nafarroan batez ere. Eta horretan dago, mintza gaitzen argi-eta-garbi, Nafarroan dagoen arazo politikoaren kaxa; Nafarroak ez daki zer den. Hobeki esan: Aragoi-ren bidia zergatik ez duen onartu behar ez du ikusten. Eta euskara galdu duelako dago identitate-zalantza larri horretan.

Baina, begira dezagun aurrerago. Bizkaia euskalduna bada, zenbat erabiltzen da euskara? % 15 edo 16-ek baldin badakite (?) euskaraz, zenbat erabil daiteke? Belarriak zabaltea aski da: oso oso gutxi. Hementxe dagoen batek atzo esaten zidenez, etsipenean, arratsalde osoa Gernikan pasa, eta elkarriketa bakar bat ez omen zuten euskaraz entzuten. Gauza bera esan dezaket nik Durango-ri buruz (hain zuzen ere, hantxe bildu baikinen Dialektologia-Sailekook joan den astean):

ez nuela, kalea, elkarriketa bakar bat euskaraz entzun arratsalde osoan barrena. Egia trista, egia hitza. Eta gauza antzekoak gertatzen dira herri askotan. Euskaldunak (teoriatzko euskaldunak jakina) minorian daude euskalduntzat dauzkagun eskualdeetan: Urrietan, Arrigorriagan, Basaurin, Arrasaten, Aretxabaletan, Errederian, Pasaian, Irunen, Zumarragan, Ermuan, Donibane-Lohitzunen, Hendainan, Getharian... Erdalunak dira nagusi.

Hori bakarrik ez. Kanpotarrik gehienek, azkeneko hauteskundeetan garbi ikusi denez, integratzeko asmorik ere ez dute. Lehendabizi egia ikusi behar da; eta gero etor daitezke soluzioak. Eta, horrez gain, euskaldunak berak, askotan, gehiegitan, beharrik bat ere gabe, erdaraz mintzo dira; erdaraz, bai, egun osoan, euskara erabat zapuztu eta zokoratuz. Baita "abertzale" omen direnean ere.

Euskararen erabilpenak, beraz, Ruiz Olabuenagak Iruñean, "Larraona" honetanxe orain dela egun batzuk esan zuten bezalaxe, "punto de no-retorno" iristeko zori-zorian dago. Eta esaten dudana hau guztia ez da alarmismoa edo pesimismoa, egia latza baizik.

Eta hau izkutatua nahi dutenak, edo oraindik ikusi ez dutenak, euskararen eta Euskal Herriaren etsarik handienak dira. Gure herriaren opinio bihurtu baitira.

Erabilpena da kontua. Euskaraz mintzo ez den pertsonak, zernahi esanagatik ere, gure hizkuntza hildu; eta bere inguruan erdaraz mintzatzera bortxatzen duen heinean, etnozidioaren kolaboratzailea da. Gauza garrantz hauek esateko unea etorri da.

Eta jokatzeko momentua ere bai. Horretara bilduko gara berriero ere "Euskal Herrian Euskaraz" mogimendukook, "Larraona" honetanxe, datorren larunbat honetan (VIII-23-an) erabilpen hori sustatzen laguntzeko. Euskaltzale guztiok zaudete bertara ditua. Larunbatera arte, beraz.

TXILLARDEGI